

HILEKOAREN POLITIKA ETA KULTURA ALTERNATIBOEN ETNOGRAFIA BAT: GENERO-KONFIGURAZIOAK, GORPUTZ-AHALDUNTZEA ETA EZAGUTZA KOLEKTIBOAK

Tesiaren egilea: Miren Guilló Arakistain

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila

Tesi-zuzendaria: Mari Luz Esteban Galarza

Tesiaren laburpena:

Doktore-tesi honetan, hilekoaren inguruan azken hamarkadotan garatzen ari diren hainbat jarduera eta proposamen kritiko aztertu dira, genero-harremanak eta gorputz- zein osasun-ideologiak aintzat hartuz eta agentzia-prozesuei modu berezian erreparatuz. Horretarako, hilekoaren esanahi biomediko eta kultural nagusiak aztertzeaz gain, horiei erantzuten dieten bestelako politikak eta kulturak aztertzea izan da ikerlanaren helburua; ikuspegi hegemonikoa auzitan jarri eta irudikapen zein iruditegi alternatiboak bilatzen dituzten ekintza eta gorputz-politikak ikertzea, alegia. Hala, proposamen eta testuinguru horietan gertatzen diren eztabaida feministak, genero-konfigurazioak eta -harremanak ikertu dira, baita horietan sortzen diren aldaketarako sozializazioak ere. Era berean, prozesu horietan lagunarteko harremanek eta afektuek duten garrantzia arakatu da, ezagutzak sortzeko modu kolektiboekin eta bertan garatzen diren askotariko estrategia sentsorial-estetikoekin batera. Horretarako, berriemaileen bizipenak eta praktikak prozesu etnografiko sakonaren abiapuntutzat hartu dira. Izan ere, ikerketa burutzeko, prozesu horien dimentsio politikoa, afektiboa eta materiala uztartu dituen analisisa baliatu da.

Analisiaren testuinguru zientifikoa gorputzaren teoria sozialak, medikuntzaren antropologiak, teoria feministak eta zientziaren ikerketa kritikoak eratu dute bereziki, horri guztiari kontsumo-gizartearen ikuspegi kritiko bat ere gaineratu zaiolarik. Ikerketaren abiapuntuan egon den hipotesia honakoa da: azken urteotan nabarmen areagotu diren hilekoarekin loturiko askotariko ekimenen azterketa zinez baliagarria dela generoaren, osasunaren eta kontsumoaren arloan gure jendartearen gertatzen ari diren aldaketak ulertzeko.

Ikerketak egiten duen proposamen metodologikoari dagokionez, etnografia-azterketa sakon bat burutu da 2009-2019 urte-bitartean, eta horrek, hilekoaren politiken baitako areagotze zein aldaketetan ez ezik, generoaren, osasunaren eta kontsumoaren arloetan ere gertatzen ari diren aldaketetan barrentzeko aukera

ahalbidetu du. Horretarako, hiru estrategia metodologiko nagusi baliatu dira. (1) Alde batetik, behaketa parte-hartzailea: autoreak 34 ekimen (hitzaldiak, tailerrak, arte-erakusketak...) behatu ditu. (2) Bestetik, elkarrizketa sakonen bidez, 36 pertsona elkarrizketatu dira, ekimen horien bultzatzaile eta parte-hartzaileak, zein arlo horretan sortzen ari diren teknologien erabiltzaileak. Zenbait berriemaile behin baino gehiagotan elkarrizketatu dira, denboran zehar, bizi-, iritzi- eta pertzepzio-aldaketetan zein ikergaiaren eremuko aldaketetan elkarrekin sakonduz. (3) Hirugarrenik, gaur egun gorputzarekin eta afektuekin loturiko zenbait ikerketatan baliatu ohi den dimentsio autoetnografikoa ere aplikatu da, esperientzia horiek prozesuan izan duten eragin epistemologikoa esplizitu eginez.

Hala, doktore-tesi honetan, ikerketako parte-hartzaileen prozesuak, esperientziak eta jakintzak elkarrizketan jarri dira ezagutza biomedikoekin, teoria feministarekin eta antropologikoekin, ezagutza eta pentsamolde hibridoak eta eraldatzaileak sortzeko asmoz.